



ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengoa agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2021eko abenduaren 16an onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2022ko abenduaren 15ean, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenean. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-11-24ko ohiko osoko bilkuraren akta, (9.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: osoko Bilkurako ohiko bilkuren 2023ko egutegia onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: brigadako peoi gidari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: eraikinen mantenu teknikari plaza sortzea, laboral finkoa, C2 taldea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023rako Lanpostuen Zerrenda onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023rako Plantilla Organikoa onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 30ean.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023ko aurrekontua onartzea, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2022ko abenduaren 12an.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: San Martin Fundazioak elkarteari lagatzen dion eraikinaren akordioa onartzea, puntua gai-zerrendan sartzea berretsi ondoren.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. 2022ko urtarrilaren 1ean, zuzenbidezko biztanleriaren berri ematea: 11.515 biztanle.

12. 2022ko azaroaren 21etik 2022ko abenduaren 9ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 1261 zenbakitik 1360 zenbakira.
13. 2022ko Toki Gobernuako Batzordeen akten berri ematea (28., eta 29. saioak).
14. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udaltzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gairerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2022eko abenduaren 12an
Alkateak
Izaro Elorza Arregui

